



## ZURETZAT ZER DIRA ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNEN JARDUNBIDE EGOKIAK EKONOMIA ARLOAN?

Bezeroek, hornitzaileek, inbertsioek, erosketek eta abarrek osatzen dute ekonomia-arloa.

### Ondorio nagusiak:

- • • Inbertsio arduratsuak
- • • Gardentasuna produkzio-kate osoan
- • • Hornitzaileak erantzukizun-irizpideak oinarritzat hartuta hautatzeko irizpideak ezartzea
- • • Zuzendaritza-taldea Enpresen Gizarte Erantzukizunean inplikatzeko
- • • Eskuragarri dauden baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra
- • • Komunikazio arina hornitzaile eta bezeroekin
- • • Harreman-esparru berria enpresaren eta pertsonen artean
- • • Lehiarekin batera proiektu jakin batzuk abian jartzeko aliantzak sustatzea
- • • Kontratazio-baldintzak hobetzea araudiaren gainetik
- • • Hornitzaileei garaiz ordaintzea
- • • Bezeroak mimatzea
- • • Bestelako gizarte-irizpideak baloratzea, ekonomia-irizpideez gain
- • • Gizarte-arloan arduratsuak diren inbertsioak

## ZURETZAT ZER DIRA ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNEN JARDUNBIDE EGOKIAK INGURUMEN ARLOAN?

Ingurumen-arloa diogunean, ingurunean eragindako inpaktua esan nahi dugu.

### Ondorio nagusiak:

- • • Mugigarritasun-planak – karbono-oinatza kalkulatzeko (garraio kolektiboa, car pooling, cars haring)
- • • Ekodiseinua
- • • Berriz hezteko, energiaren gastuaren eta kontsumoaren kontzientzia hartzea
- • • Hondakinak murriztea
- • • Zenbait eremutako itzal handiko beste enpresa batzuetako jardunbide egokiak aprobetxatzea
- • • Ingurumen-kontzientziazioa hornidura-katera hedatzea
- • • Ingurumen-kudeaketako ideia bikainak garatzen dituzten langileak saritzea
- • • Ingurumena gizarte- eta enpresa-premia delako ideia zabaltzea, jendeak kontzientzia har dezan
- • • Produkzio-prozesua kontrolatzea
- • • Ingurumenak langilearen egunerakoan duen garrantziaz ohartaraztea, ohiturak sortzea.
- • • Ingurumen-prestakuntza langile eta hornitzaileentzat (balio erantsia enpresarentzat: ingurumenean inpaktu txikiagoa eragiten duten produktuak)
- • • Ingurumen-inpaktua murrizteko hobekuntza-ekintzak
- • • Kontsumo-adierazleen eta abarren jarraipena
- • • Energia-auditoretzak
- • • Komunikabideen inplikazioa
- • • Tokiko inguruneko produktuen erosketak sustatzea

